

# **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA ALDATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

## **ERAKUNDE ETA ORGANO AHOLKU-EMAILEEK EGINDAKO EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA**

**2019ko ABENDUA**



## **AURKIBIDEA**

<b>1. AURKEZPENA</b>	<b>2</b>
<b>2. ERAKUNDE ETA ORGANO AHOLKU-EMAILEEN PARTE-HARTZEA KONTSULTA-PROZESUETAN</b>	<b>3</b>
<b>3. ERAKUNDEETA ORGANO AHOLKU-EMAILEEK LEGE-AURREPROIEKTUARI EGINDAKO EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA</b>	<b>4</b>
<b>3.1. IZAERA OROKORREKO EKARPENEN EMAITZA</b>	<b>4</b>
<b>3.2. AURREPROIEKTUAREN ARTIKULUEI EGINDAKO EKARPENEN EMAITZA</b>	<b>7</b>

## 1. AURKEZPENA

Dokumentu honek jasotzen ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektua egiteko prozesuan erakunde eta organo aholku-emaile eskudunek izandako parte-hartzearen emaitzak; hauek dira dokumentuaren **HELBURUAK**:

1. Txostenak eta irizpenak egin dituzten erakunde eta organo aholku-emaile guztiek jakin dezatela zer balorazio egin dien Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak haiek egindako proposamenei, eta, hala badagokio, egiazta dezatela nola txertatu diren proposamen horiek lege-aurreproiektuaren hirugarren zirriborroaren.
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Legearen aurreproiektuaren hirugarren zirriborroa egiteko prozesuan, erakunde eta organo aholku-emaileek izan duten parte-hartzea aitortzea eta balioestea.
3. Euskal erakunde publiko guztiek, herritarrek, gizarte-eragileek, eragile ekonomikoek eta, hala badagokie, beste erakunde batzuek ere, lege-aurreproiektuaren kontsulta-prozesuan erakunde eta organo aholku-emaileek izandako parte-hartzearen emaitzei buruzko informazioa izatea.

### AURRETIKO GOGOETAK:

- ▶ Dokumentu honetan aurkezten dira **erakunde eta organo aholku-emaile eskudunek** lege-aurreproiektuari egin dizkieten ekarpenak txosten eta irizpenen bidez. Hala eta guztiz, lege-aurreproiektuaren kontsulta-prozesuari esker, aurreko faseetan beste ekarpen batzuk egin ahal izan dira, eta ekarpen horiek ere arau-testua hobetzen lagundu dute. Ekarpene horiek gizarte zibiletik (kontsulta publikoaren fasea), euskal erakunde publikoetatik eta Eusko Jaurlaritzako koordinazio-organoeetatik datoz. Azken ekarpen horiek orri hauetan jaso ez badira ere, jakinarazi behar da, oro har, 400 ekarpen baino gehiago jaso eta aztertu direla.
- ▶ Erakunde eta organo aholku-emaileek egindako **proposamenak** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege Aurreproiektuaren **bigarren zirriborroan** oinarrituta egin dira, eta haiei esker, etorkizuneko arau horren **hirugarren zirriborroa** egin ahal izan da. Ildo horretan, komeni da zehaztea hirugarren zirriborroa ez dela behin betikoa; izan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen aurreproiektua bideratzeko prozesuari jarraikiz, aurreproiektu hori erakunde eta organo aholku-emaileei helarazteaz gain, beste gune instituzional batzuekin alderatu behar da (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua eta Gobernu Kontseilua), haiek nahitaezko txosten edo irizpen batzuk eman ditzaten, aurreproiektu hori lege-proiektu gisa Legebiltzarrera igorri aurretik.

### DOKUMENTUAREN EGITURA:

- ▶ Aurkezpenaz gain, informazioa bi bloketan egituratuta agertzen da. Lehenengoan, labur-labur deskribatzen dira erakunde eta organo aholku-emaileen partaidetzari dagozkion ezaugarriak eta, bigarren blokean, berriz, zenbait proposamen jasotzen dira, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak horiei buruz egindako balorazioa barne.

## **2. ERAKUNDE ETA ORGANO A HOLKU-EMAILEEN PARTE-HARTZEA KONTSULTA-PROZESUETAN**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroaren testua erakunde eta organo aholku-emaileekin kontrastatzeko fasea 2019ko uztaila eta azaroa bitartean egin da.

Jarraian erakusten den taulan, egindako ekarpenen jatorria zehazten da. Hala ere, komeni da kontuan hartzea arau-testuari oharrak egin dizkioten erakundeen eta organo aholku-emaileen kopurua ez datorrela bat egindako proposamenen kopuruarekin; izan ere, erakunde eta organo aholku-emaile bakar batek, oro har, ekarpen bat baino gehiago egin dizkio lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroari.

### **ERAKUNDE ETA ORGANO A HOLKU-EMAILEAK**

- 1. EAEko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordea**
- 2. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.**
- 3. Euskadiko Lan Harremanen Kontseilua**
- 4. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua**
- 5. Euskadiko Eskola Kontseilua**
- 6. Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea**

### 3. ERAKUNDE ETA ORGANO A HOLKU-EMAILEEK LEGE-AURREPROIEKTUARI EGINDAKO EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA

Atal honetan, erakunde eta organo aholku-emaileek egindako txosten eta irizpenen bidez egindako ekarpenak aurkezten dira, eta kontuan hartzen da ekarpen horien **izaera orokorra** den (testu osoari edo **titulu** edo **kapitulu oso** baten **eduki** orokorreari eragiten dieten) edo **espezifikoa** (**artikulu** baten edo batzuen testuan eragiten duten). Jasotako ekarpenei dagokienez, honako hau esan beharko litzateke haien aniztasuna eta zehaztapen-maila direla eta:

- ▶ Ekarpena erreproduzitzen da, baita lege-aurreproiektuaren hirugarren zirriborroan nola txertatuta geratzen den ere. Dena den, batzuetan ez da hitzez hitz txertatzen dokumentuan, irakurketa errazteko eta arintzeko.
- ▶ Egindako ekarpen guztiak aztertu dira, baina dokumentu honetan ez dira ageri iritzi edo hausnarketa orokorrekin zerikusia dutenak, hau da, proposamen zehatz batean zertzen ez direnak. Era berean, ez da aurkeztu arau-testu osoari edo haren artikulu batzuei eragozpenik jarri behar ez zaiela eta proposatutako idazketari eutsi behar zaiola adierazten duen ekarpenik.
- ▶ Lege-aurreproiektuaren zirriborroko artikuluei egindako ekarpenei dagokienez –halakoak izan dira gehienak–, honako hurrenkerari honi jarraikiz agertzen da informazioa:

**Lehena:** proposamena zein kapitulutan eta titulutan inskribatzen den identifikatzen da, eta aldatzea proposatzen den artikulua edo artikulua deskribatzen dira.

**Bigarrena:** proposamenaren azterketa abiapuntutzat hartuta, artikulua aldatzea «egokia» den ala «desegokia» den adierazten da. Proposamenak artikuluetan zenbait aldaketa eragiten baditu eta horiek balorazio desberdina badute, proposamena «partzialki egokia» dela esaten da.

**Hirugarrena:** labur-labur deskribatzen da Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak egiten duen proposamenaren balorazioa, «egokia», «desegokia» edo «partzialki egokia» zergatik den arrazoitzeko.

**Laugarrena:** apartatuaren amaieran, taula batean jasotzen dira ekarpenak egin diren arauaren kapituluaren eta tituluen izenak, ez baitira xehetasunez zehazten artikuluei egindako ekarpenak testuinguruan jartzen direnean.

- ▶ Dokumentu honetan ez dira jasotzen estiloari buruz egindako ekarpenak, ezta hainbat terminologia bateratzeari edo zehazteari buruzkoak ere, zehaztugabetzat jotzen diren kontzeptu juridikoak erabiltzea saihesteko.

#### 3.1. IZAERA OROKORREKO EKARPENEN EMAITZAK

- ➔ Egokitzen jotzen da esposizio atalean eta xedapenetan definiziorik ez sartzea (adibidez, «sexua» eta «generoa»); izan ere, arau-testua denboran irauteko idatzienez, nahiago da zehaztasun maila horretara ez jaistea, oso kasu jakinetan izan ezik, non eta definizio horien inguruan adostasun handia dagoen.
- ➔ Egokitzen jotzen da berdintasunerako eta sexuan oinarritutako diskriminazioaren aurkako lege batek, **zioen azalpenean**, azpimarratzea ezen legea egotearen eta aplikatzearen onuradun nagusiak emakumeak direla eta, bereziki, desberdintasunaren eragin handiena jasan dutenak; beraz, baieztapen hori ez da aldatuko. Zioen azalpenari dagokionez ere, egokitzen jotzen da zati horren idazketa laburtzea eta arintzea.
- ➔ 14. artikulua lege-aurreproiektuan aurreikusitako neurrien **finantzaketari** heltzen badio ere, komeni da aipatzea erakunde eta organo aholku-emaileei ez zaiela bidali **memoria ekonomikoa**, zeina geroago helaraziko baitzaio, geroagoko fase batean, aurreproiektuaren hirugarren zirriborroarekin batera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Zuzendaritzari, kontrol ekonomiko-normatiboko nahitaezko

txostena egin dezan. Memoria ekonomiko horretan, besteak beste, udal-eskumeneko harrera-etxeei «esku-hartze sozioedukativo eta psikosozialeko eta intentsitate txikiko gizarte-laguntzako zerbitzuak» emateko behar diren baliabideen zenbatespena egingo da, 57.1 artikuluan jasotzen den bezala.

Bestalde, administrazio autonomikoei eta foru- eta toki-administrazioei eskatzen zaie beren aurrekontuetan urtero esleitu eta zehazteko lege-aurreproiektuan aurreikusitako eginkizunak betetzera eta neurriak gauzatzera bideratu behar diren baliabide ekonomikoak, horrela, pixkanaka bermatzeko aurrekontuen % 1 gutxienez emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak garatzera bideratuko dela. Eskakizun horri dagokionez, uste da garrantzitsua dela euskal herri-administrazioek berdintasunarekin duten konpromisoa agerian jartzeko, **% 1eko erreferentziari** eustea, Bizkaiko eta Gipuzkoako berdintasunerako foru-arauetan jasotakoarekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen 2018ko abenduaren 12ko Akordioarekin bat etorritz. Erabaki hori euskal administrazio publikoko hiru mailetako ordezkariak sinatu zuten. Hala ere, behin betiko erabaki bat hartu aurretik, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Zuzendaritzaren eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iritzia zain gaude.

- ➔ **Euskal herri-administrazioek autoantolaketaren** arloan duten eskumenari dagokionez, eta lege-aurreproiektuak autoantolaketarako gaitasun horretan izan ditzakeen «esku-sartzeekin» lotutako proposamenei dagokionez ( 5. art., 6. art., 7. art., 10.1. art. eta 15.1. art.), egokiagozat jotzen da testua aurkezten den bezala mantentzea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iritzia jakin arte. Izan ere, alde batetik, Eudelek eta foru-aldundiek beren ekarpenetan ez dute zalantzan jarri artikulua horietan aurreikusitako eskumen-banaketa, eta bestetik, indarrean dagoen berdintasun-legean jada jasota dauden alderdiak jasotzen dira.

Lege-aurreproiektuak euskal administrazio publikoen eskumenetan dituen interferentzietan dagokionez, udalerriei betebeharrak berriak esleitzen baitizkie, oro har zehaztu behar da, proposatzen den moduan, aurreikusita dagoela Euskadiko Toki Erakunde berruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 18.3 artikulua jasotzen duen eranskina egitea. Artikulu horren arabera, legeak udalerriei eskumenak eta eginkizunak esleitzen edo zehazten dizkietenean, eranskin berezi batean bildu behar da zenbatekoa den udalerrien finantza-nahikotasuna bermatzeko behar den baliabide-zuzkidura.

- ➔ Legeak, batzuetan, ez du zehazten **zer euskal administrazio publikori dagokion jarduketak egitea edo zerbitzuak ematea**. Horri lotutako proposamenei dagokionez, adierazi behar da, kasu bakoitzaren arabera, errealitate hauek eragin dezaketela hori:
  - ▶ **Zeharkako** edo izaera horizontaleko gai bat aipatzen da, eta administrazio publiko guztiei dagokie aipatzen diren jarduerak edo prestazioak gauzatea. Kasu horietan, eskumenaren lurralde-eremuak mugatzen du jarduketara eremu zehatza (adibidez, emakumeen ahalduzko programak).
  - ▶ Administrazio bakoitzaren **jarduera-eremu** zehatzak **mugatzen** ditu administrazio horrek erreferentziako arlo sektorialean (enplegua, hirigintza, gizarte-zerbitzuak, etab.) dituen **eskumenak**.
  - ▶ **Ez da beharrezkoa halako zehaztapenik egitea**. Hala, esate baterako, 48.3 artikuluan, non ezartzen baita botere publikoek jaiotza, adopzio eta harrera kasuetan baimen berdinen eta besterenezinen aplikazioa sustatu behar dutela, zehaztapen hori egin beharrik ez dagoela uste da, printzipio horiek «sustatzeko» hainbat modu egon baitaitezke, administrazio bakoitzaren eskumenen arabera.
- ➔ Positiboki baloratzen da **azken xedapenetan** proposatzea aurreproiektuak ukitzen dituen legeei egin dakizkiekeen egokitzapenak, bai eta, beharrezkoa balitz, ekainaren 30eko 7/2015 Legea, gurasoen banantze edo haustura kasuetarako familia-harremanei buruzkoa, aldatzen duen xedapen gehigarri bat sartzea ere, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurretiazko salaketak daudenean zaintza partekatutako ematea saihesteko.

## 3.2. AURREPROIEKTUAREN ARTIKULUEI EGINDAKO EKARPENEN EMAITZAK

PROPOSAMENA/EKARPENA	EMAITZA	EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN BALORAZIOA
<b>ATARIKO TITULUA 1. art.- XEDEA</b>		
▶ Emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeari «kulturan» eta «lanean» duten posizioa sendotzea gehitzea, egiturazko desberdintasuna eta sexuagatiko diskriminazio mota guztiak ezabatzeke.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagoztat jotzen da idazketa bere horretan uztea, lan-arloa arlo ekonomikoan sartuta baitago, eta ez baitago argi zer esan nahi den «kulturan duen posizioa» aipatzen denean.
<b>ATARIKO TITULUA 3. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK</b>		
▶ Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak aldatzea, ordainsari-berdintasuna printzipio orokor gisa sar dadin, handia baita arlo horretan emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakala.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagoztat jotzen da testua dagoen bezala uztea. Alde batetik, ordainsari-berdintasuna tratu-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren kontzeptu orokorragoen barruan egongo litzatekeelako, eta testuaren koherentzia- eta sistematika-arrazoiengatik, ez delako egokitzat jotzen atal horretan jasotzea ordainsari-berdintasuna; izan ere, ez da jasotzen berdintasuna enplegua lortzean, lan-baldintzetan, erabakiak hartzeko eremuetan parte hartzean eta abarretan ere. Gainera, ordainsari-berdintasuna berariaz arautzen du 40.6 artikulua. Bestalde, uste da legearen eta printzipio orokorren helburua, oro har, 1. artikuluan jasota dagoela, eta helburu berri bat sartzek nahasmena sor dezakeela.
<b>ATARIKO TITULUA 3.1. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. TRATU BERDINTASUNA</b>		
▶ Tratu Berdintasunaren printzipio orokorraren idazketa aldatzea, diskriminazio anizkoitzean eta definizioan sakonduz. Diskriminazio anizkoitzaren kontzeptua berariaz aitortu da 2001ean Durbanen (Hegoafrika) egindako Arrazismoa, Arraza-bereizkeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako Nazio Batuen Konferentzian.	PARTZIALKI EGOKIA	▶ Egokitzat jotzen da testua aldatzea diskriminazio anizkoitzaren kontzeptua berariaz sartzeko, baina hura definitu gabe.
<b>ATARIKO TITULUA 3.2. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. AUKERA BERDINTASUNA</b>		
▶ Honako hau eranstea: euskal herri-aginteeek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen «lan-eskubideak», artikuluan jada jasotzen diren beste eskubideez gain, berdintasun-baldintzetan baliatzen dituztela bermatzeko. Garrantzitsutzat jotzen da lan-merkatua emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak sortzen dituen espazio gisa ikusaraztea.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagoztat jotzen da idazketa dagoen bezala mantentzea, lan-arlokoa arlo ekonomikoan sartuta baitago, eta, izatez, 1966ko Nazio Batuen Ituna eskubide sozial, ekonomiko eta kulturei buruzkoa baita.

<b>ATARIKO TITULUA 3.7. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. ORDEZKARITZA OREKATUA</b>		
▶ a) eta c) letretan jasotako egitateak objektibatzea, adierazten den printzipioa bermatzeko.	<b>EGOKIA DA</b>	▶ Egokitzat jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea. Bi kasuetan, testua honela adieraziko litzateke: «modu objektiboan frogatzen denean...».
<b>ATARIKO TITULUA 3.9. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA</b>		
▶ Emakumeen ahalduntze kontzeptua definitzea.	<b>EGOKIA DA</b>	▶ Egokitzat jotzen da legearen lehen zirriborroan ahalduntzeari buruz ematen zen azalpena berreskuratzea, eta hura honela egokitzea: «Lege honen ondorioetarako, emakumeen ahalduntzetzat jotzen da emakumeek egiten duten prozesua emakume izateagatik jasaten duten desberdintasun-eta diskriminazio-egoera estrukturalaz banaka eta taldeka jabetzeko. Emakumeen ahalduntzetzat jotzen da, halaber, emakumeek eskumenak, boterea eta kontrola eskuratzeko gauzatutako prozesua beren bizitzetara erabaki estrategikoak hartu ahal izateko, eta bizitzaren zenbait alderditan generoagatiko berdintasun-eza eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten dituzten egiturak eta erakundeak eraldatu ahal izateko».
<b>ATARIKO TITULUA 3.11. Art.- GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA</b>		
▶ Testuaren idazketa ikuspegi teknikoago batetik berrikustea honako alderdi honi dagokionez: euskal botere publikoek gardentasuna bermatzea, eta herritarrei kontu ematea, diru publikoaren bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko.	<b>EGOKIA DA</b>	▶ Egokitzat jotzen da testua aldatzea, «diru publikoa» esamoldearen ordez «baliabide publikoak» jarrita, eta berrikuntza sartzea berdintasun-politikak etengabe hobetzeko funtsezko faktore gisa.



<b>I. TITULUA I. KAPITULUA 7. art. 1. TOKI ADMINISTRAZIOARENA</b>		
<p>▶ Artikuluaren hasierako paragrafoaren idazketa berrikustea, eta honako hau jasotzea: emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan «eta lege honen xedeei dagokienez» Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie...</p>	<b>EGOKIA DA</b>	<p>▶ Egokitzen jotzen da testua zehaztutako zentzuan aldatzea.</p>
<p>▶ 7.1 artikulua berrikustea, zehazki i) eta j) letrak, udal-eskumenei eragiten dietela uste delako, oso zehatzak ez diren formulen bidez. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (ETEL) zehaztasun-maila handiagoa eskatzen du, are gehiago kontuan hartzen bada erreformak gizarte-zerbitzuei buruzko legeriari eragiten diola.</p>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	<p>▶ Aipatutako atalak eta horietan erabilitako formula indarrean dagoen 4/2005 Legean jasota daudela uste da. Izan ere, i) letran «emakumeen ahalduntzea sustatzeko helburua duten programa eta zerbitzuei» buruzko aipamen bat baino ez da gehitu, udalerrri askok jada ematen dituzten zerbitzu edo programa batzuk jasotzeko, esate baterako, ahalduntze-eskolak. j) letran, «erantzunkide» adjektiboa eta «kontziliazio» terminoa bakarrik sartu dira.</p>
<b>I. TITULUA II. KAPITULUA 10.3 art. eta 10.4. art. -FORU-ADMINISTRAZIOAK, TOKI-ADMINISTRAZIOAK ETA BESTELAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK</b>		
<p>▶ Bi artikuluetan berrikustea administrazio-egiturek posizio organiko eta harreman funtzional egokia izateko premia, erabaki politikoak hartzeko orduan eraginkortasunez eragin ahal izan dezaten; bestela, foru- eta toki-administrazioen autoantolatetako eskumenenak oztopa ditzakete.</p>	<b>PARTZIALKI EGOKIA</b>	<p>▶ Egokitzen jotzen da 10.3 artikulua aldatzea, eta aipamen hau kentzea: aipatutako administrazio-egituren posizio organikoak edo funtzionalak «erabaki politikoak hartzean eragiteko» aukera eman behar dio.</p> <p>▶ «Posizio organiko eta harreman funtzional egokia» izateko beharra aipatzea hain da generikoa, ezen zaila dirudi administrazio batek bere burua antolatzeke duen gaitasuna murriztu ahal izatea.</p>
<b>I. TITULUA III. KAPITULUA 14.1. art. -XEDAPEN OROKORRA</b>		
<p>▶ Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren aginduari jarraitzea, artikuluan aurrekontu publikoen eraginaren ebaluazioa sartzeko.</p>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	<p>▶ Egokiagoztat jotzen da testua idatzita dagoen bezala mantentzea, 18. artikuluan eta hurrengoetan jada aurreikusten baita arau guztietan generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko betebeharra, aurrekontuen legeetan barne.</p>

II. TITULUA I. KAPITULUA 15.4. art. -EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAK		
▶ <b>15.4.a) apartatua aldatzea, eta adieraztea emakumeen eta gizonen berdintasunerako planek egoeraren diagnostiko bat izan behar dutela, «eta ondoren ekintzak zehaztu» behar dituztela.</b>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Egokiagoztat jotzen da testua dagoen bezala mantentzea, ekintzen zehaztapena jada aurreikusita baitago f) letran.
II. TITULUA II. KAPITULUA 16.2. art.- ESTATISTIKEN ETA AZTERLANEN EGOKITZAPENA		
▶ <b>Idazketa hobetzeko, gehitu behar da azterlanak, ikerketak, estatistikak edo datu-bilketa egitean sistematikoki sartuko dela sexuaren aldagaia, eta «emaitzak genero-dimentsiotik» aztertuko direla.</b>	<b>EGOKIA DA</b>	▶ Egokitza jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
II. TITULUA III. KAPITULUA 17.2. art., 17.4. art. eta 17.5. art. -EUSKAL HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO LANGILEEN GAIKUNTZA		
▶ <b>17. artikulua berrikustea, bereziki 17.2., 17.4. eta 17.5 apartatuak, uste baita aurreproiektuak toki-erakundeen autoantolamendu-ahalmenetan eragiten duela, batez ere ETELen arabera udalerriek eskumenak dituzten gaiak arautzen dituen. Zalantzakotzat jotzen da legeak zehaztu ahal izatea toki-erakundeetako lanpostu-zerrendetan zein lanpostu zehatz jaso behar diren, lanpostu horiek eskuratzeko baldintzak zeintzuk diren, eta lanpostuak A sailkapen-taldeko funtzionarioek bete behar dituztela, dedikazio esklusiboko eta lanaldi osoko baldintzetan.</b>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Egokitza jotzen da artikulua jatorrizko idazkeran mantentzea, uste baita indarreko legearen 17. artikulua jada ezartzen duela euskal administrazio publikoek plaza gehiago izan behar dituztela berdintasun-politikak bultzatzeko, baina ez du zehazten plaza horiek lanpostuen zerrendetan (LPZ) sartu behar direla. Uste da plaza horiek egotea eta LPZn sartzea 10. artikulua ezarritako betebeharraren ondorio logikoa dela, hau da, administrazio publiko guztiek izan behar dutela egituraren bat berdintasuna bultzatzeko. Beraz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak gai horri buruz zer erabakiko zain, egokiagoztat jotzen da artikulua horri eustea, eta aldaketa bat egitea honako hau argitzeko: plazak LPZn edo «antolamendu-tresna baliokideetan» (LPZ ez duten administrazioen kasuan) sartu ahal izango direla eta plaza horien helburua 10. artikuluan aipatutako berdintasun-egiturak hornitzea izango dela.  ▶ 17.2.a) eta 17.5 artikuluei dagokienez, behin betiko erabakia hartu aurretik, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak haien legezketasunari buruz zer iritzi duten jakiteko zain gaude.
▶ <b>17.2.a) artikulua aldatzea, eta honako hau adieraztea: euskal botere publikoek «bermatuko» dutela («sustatu» ordez) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza ez dela kontuan hartuko prestakuntzarako oro har dauden urteko orduak kalkulatzeko. Gainera, prestakuntza hori lanaldiaren barruan egingo dela gaineratu behar da, eta benetako lan-denboratza hartuko dela.</b>	<b>EGOKIA DA</b>	▶ Egokitza jotzen da artikulua proposatutako moduan aldatzea, adieraziz euskal administrazio publikoek bermatuko dutela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza lanaldiaren barruan egingo dela, eta ez dela kontuan hartuko prestakuntzarako oro har dauden urteko orduak kalkulatzeko.

<p>▶ <b>17.2.b) eta c) artikulua aldatzea, lanpostu mota guztietan berdintasunaren arloan beharrezkoak diren gaitasunak identifikatzearen «aldizkako» izaera kenduz, eta prestakuntza-planek «egokiak» izan beharko dutela adieraziz, identifikatutako prestakuntza-beharren neurria egindako ekintzak izan behar dutela esan beharrean. Bestalde, «kargu publikoak dituzten pertsonak» esamoldearen orde, beste adierazpen zehatzago bat jartzea proposatzen da.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Egokitzat jotzen da artikulua proposatutako moduan aldatzea, eta honako hau adieraztea: lanpostuen tipologia guztietan identifikatuko direla lanpostu bakoitzean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskatzen diren konpetentziak eta horiei dagozkien prestakuntza-beharrak, eta horiek betetzeko prestakuntza-planak egin eta gauzatu beharko direla. Gainera, «erantzukizun politikoa duten pertsonak» esamoldearen orde, «kargu publikodunak» jartzen da.</p>
<p>▶ <b>17.4. artikuluan, berdintasunean, ikasketa feministetan edo genero-ikasketetan espezializatutako gradu eta graduondoko unibertsitate-ikasketen tituluak aitortzea aipatzen denean, kontuan hartzea Lanbide Heziketak duen zeregina berdintasunaren arloan lan egingo duten teknikarien berariazko gaikuntza bermatzeko baldintza gisa.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokiagotzat jotzen da testua idatzita dagoen bezala mantentzea; izan ere, egungo idazketak, Lanbide Heziketaren bidez lortutako prestakuntza berariaz aipatzen ez badu ere, ez du hura baztertzen. Gainera, berdintasun-teknikariek bete behar dituzten eginkizunak eta erantzukizunak ikusita, unibertsitateko prestakuntza egokiagoa dela ulertzen da.</p>
<p>▶ <b>4. eta 5. artikulua xedapen gehigarri gisa sartzea, funtzio publikoari dagozkion gaiak arautzen baitituzte.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokiagotzat jotzen da testua jatorrizko idazkeran mantentzea, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iritzia jakin arte.</p>
<p><b>II. TITULUA IV. KAPITULUA 20.1. art. -HAUTAKETA-PROZESUA ETA EPAIMAHAIK</b></p>		
<p>▶ <b>«Enplegu publikoa» esamoldea eta kategoria horren barruan sartzen diren enpleguen tipologia hobeto zehaztea, unibertsitateko irakasle funtzionarioen lanpostuetatik bereizteko.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokitzat jotzen da artikulua ez aldatzea; izan ere, «enplegu publikoa» terminoa «araudian eta administrazio-jardueran berdintasuna sustatzeko neurriei» buruzko kapituluaren kokatzeak garbi uzten du administrazio publikoetako enpleguei buruz ari dela, eta beraz, unibertsitateetako irakasle funtzionarioak kanpoan uzten ditu, haien araubide juridikoa ez baita EAren eskumenekoa.</p>

II. TITULUA IV. KAPITULUA 21.1., 21.3., 21.5., 21.6., 21.8. eta 21.10. artikulua KONTRATAZIO PUBLIKOA ETA DIRULAGUNTZAK		
<p>▶ 21.1 artikulua azken tartekia aldatzea, eta honako hau gehitzea: euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparru espezifikoan gizarte-irizpideak txertatzeko nahitaezko eta zeharkako betebeharrari buruzko printzipio orokorra aplikatuko dute, nolaz eta «objektiboki justifikatzen ez duten» kontratuaren xedeak ez duela loturarik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin (...).</p>	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
<p>▶ 21.3. artikulua Sektore Publikoko Kontratuen Legea egokitzea, eta adieraztea euskal botere publikoek kontratazio-prozeduratik kanpo utziko dituztela Estatuko oinarrizko legerian ezarritako kontratatze debekua duten pertsona fisiko eta juridikoak, besteak beste, (...) «emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloko arau-hauste oso astunengatiko zehapen irmoek» eragindako debekuak dituztenak.</p>	EGOKIA DA	▶ <input type="checkbox"/> Testua proposatutako zentzuan aldatzea egokitzen jotzen da.
<p>▶ 21.5 artikulua berrikustea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak sartzeak kontratuaren xedearekin lotura izatea eskatzen duela objektibatze eta argiago adierazteko.</p>	EGOKIA DA	<p>▶ Egokitzen jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea, eta honako hau adieraztea: ez bada objektiboki justifikatzen kontratuaren xedeak ez duela loturarik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin artikulua honen lehen paragrafoan aurreikusitako baldintzetan, kontratazio-organismoek honako hauek sartuko dituztela kontratazio-pleguetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako adjudikazio-irizpideak, baremoaren guztizkoaren % 5eko haztapenarekin, gutxienez.</li> <li>▶ Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako gauzatze-baldintza berezi bat behintzat, hizkera eta irudi mota guztietan erabilera ez-sexista egitetik harago doana.</li> </ul>
<p>▶ 21.6 artikulua berrikustea, kontuan hartuta, ikuspegi juridikori dagokionez, aurreproiektuaren edukiak eskumen-eremua oztopatzen duela, bai eremu objektibotik, EAeko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak kontratuei buruzko oinarrizko legeriak ezarritakotik haragoko datuak jasotzea nahi duelako, bai ikuspegi subjektibotik, kontratazioaren eta Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroaren arloan eskumena duen saila Ogasun eta Ekonomia Saila baita. Gainera, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL) administrazio publiko guztiei eta haien mendeko organismo eta erakunde guztiei aplikatzen zaienez, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumen-eremua ere inbaditzen ari dela ikus daiteke, sexuaren arabera banakatutako informazioa jaso behar dela ezartzen baita.</p>	PARTZIALKI EGOKIA	<p>▶ Uste da 21.6 artikulua ez duela eskumen-eremua urratzen eremu objektiboaren ikuspegitik; izan ere, SPKLren 339.1.e) artikulua aukera ematen du «kontratazio publikorako interesgarriak diren beste edozein datu» erregelamendu bidez sartzeko. Horrez gain, kontratazio publikorako interesgarritzat jotzen da, bai kontratazio horrek emakumeen eta gizonen egoeran duen eragina ezagutzea, bai administrazioarekin kontratatzen duenak ordainsari-berdintasunaren printzipioa bete dezan sustatzea. Are gehiago, datu horiek erregistroan inskribatzea borondatezkoa da, eta 6/2019 Errege Dekretuak behartu egiten ditu 50 langiletik gorako enpresak datu horiek jasotzen dituzten soldata-erregistroak izatera. Horrela, gainera, SPKLren 3.1 artikuluan jasotako agindua betetzen da, kontratazio publiko osoan berdintasun-irizpideak zeharka eta nahitaez sartzeari buruzkoa.</p>

		<p>▶ Uste da eremu subjektibotik ere ez dela urratzen eskumen-eremua; izan ere, berdintasuna zeharkako gaia denez, arlo horretan eskumena duten erakundeek badute eskumena hainbat sektore-eremutan berdintasuna sartzen lagunduko duten neurriak proposatzeko; eskumen hori dagokion arloko organo eskudunekin koordinatuta gauzatu beharko da.</p> <p>▶ Hori dela eta, egokitzen da 21.6 artikulua aldatzea, eta honako hau adieraztea: kontratazio publikoak emakumeen eta gizonen egoeran duen inpaktua ezagutzeko, eta lege honen 6 c) artikuluan xedatutakoa bete dadin bultzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan sexuaren arabera banakatutako informazioa jaso behar da, gutxienez, honako hauen kopurua:</p> <p>a) Pertsona juridikoen eta haien administrazio- edo zuzendaritza-organoak osatzen dituzten pertsona titularrak.</p> <p>b) Langileak eta haien batez besteko ordainsaria, lanbide-taldeen, lanbide-kategorien edo lanpostu berberen edo balio berekoen arabera banatuta.</p>
▶ 21.7.b) apartatuko azken tartekia kentzea; izan ere, uste da kontratazio-organoak ahalmena duela kontratua ez luzatzea erabakitzeke, pleguan hura luzatzeko aukera aurreikusten den kasu guztietan, eta 21.7.c) apartatuan jasotzen den «kontratuaren jarraipen-unitatea» aipamenaren ordez «kontratuaren jarraipen eta gauzatze arruntaz arduratuko den unitatea» jartzea, esapide hori hobeto egokitzen baitaio Sektore Publikoko Kontratuen Legean jasotako adierazpenari.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da bi paragrafoak aldatzea, proposatutako zentzuan.
▶ 21.8 apartatuko alderdi batzuk zehaztea, eta hala, adieraztea euskal botere publikoek, oro har, genero ikuspegia sartu behar dutela «dirulaguntza publikoak emateko baldintzetan», eta ez «dirulaguntza publikoetan», eta argiago idaztea zer esan nahi den «generoarekiko loturarik eza» adierazpenarekin.	PARTZIALKI EGOKIA	▶ Egokitzen da erreferentzia orokor bat egitea dirulaguntza publikoetan genero-ikuspegia sartzeari, eta «generoarekiko loturarik eza» aipamenaren ordez «dirulaguntzak ez du eraginik emakumeen eta gizonen egoeran» jartzea.
▶ 21.10.b) artikulua berrikustea, kontuan hartuta, kontratuak esleitzean edo dirulaguntzak ematean, legeak aukera ematen duela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ekintzak eta politikak baloratzeko irizpidea sartzeko, baremo osoaren % 5arekin gutxienez, baina hori ezin dela hedatu edozein kontratu edo dirulaguntzatar, bere xedea alde batera utzita.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitzen da 21.10.b) artikulua idatzita dagoen bezala mantentzea, 21.8 artikuluan jada aurreikusten delako irizpide hori ez aplikatzeko aukera, baldin eta «txosten arrazoituaren bidez justifikatzen bada dirulaguntzak ez duela eraginik emakumeen eta gizonen egoeran».
<b>II. TITULUA IV. KAPITULUA 23.2 Art.-XEDAPEN OROKORRA</b>		
▶ «Zaindako dute» esamoldea aldatzea, eta horren ordez «euskal botere publikoek, beren adierazpen publikoetan, ez dute hizkera sexista eta estereotipatua erabiliko» jartzea, Emakunderi baitagokio behatzea kargu politikoen eta beste funtzio batzuk betetzen dituztenen estaldura mediatikoa ez izatea sexista eta generoaren arabera estereotipatua; izan ere,	PARTZIALKI EGOKIA	▶ Artikulua ez da hizkuntzaren erabilerari buruzkoa, irismen handiagoa du. Hala ere, egokitzen da aldatzea, argi uzteko komunikabideei dagokiela estaldura mediatiko ez-sexista egitea. Hala, honako hau jasotzen da: euskal botere publikoaren ardura izango da komunikabideen

<p><b>Emakunde da tutoretza-erakundea, eta estatutuetan zehaztuta du bere ardura dela EAEko botere publikoek hizkera ez-sexista erabiltzea.</b></p>		<p>estaldura mediatikoa ez izatea sexista eta kargu politikodunen generoaren arabera estereotipatua, estaldura horrek ez dezan eragin negatiborik izan hautesleek sexu bateko edo besteko hautagaiak hautatzeko duten konfiantzan.</p>
<p><b>III. TITULUA I. KAPITULUA 24.3. art. -ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK</b></p>		
<p>▶ <b>Artikuluak aipatzen duen testuinguruan, «sustatu» terminoa zehaztea eta «elkarreak» terminoaren ordez «erakundeak edo antolaketa-sarea» jartzea, ahalik eta pertsona gehienengana iristeko.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA PARTZIALKI</b></p>	<p>▶ Egokitzen jotzen da artikuluak aldatzea eta honako hau adieraztea: euskal administrazio publikoek lege honetan aurreikusitako xedeak lortzeko jarduerak egiten dituzten erakunde eta antolakundeei laguntza emango diete, eta entitate horiekin (adibidez, emakumeen etxeekin) lankidetzan aritzeko bide publiko pribatuak bultzatuko dituzte, emakumeak ahalduz laguntzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak hautemateko eta biktimei eta bizirauleei lagun egiteko guneak errazteko.</p>
<p><b>III. TITULUA II. KAPITULUA KULTURA ETA KOMUNIKABIDEAK eta III. TITULUA II. KAPITULUA 25.1., 25.2., 25.3. eta 25.4 artikuluak. -KULTURA-JARDUERAK</b></p>		
<p>▶ <b>II. kapituluaren izenburua aldatzea, kirola ikusarazteko.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokiagoztat jotzen da titulua dagoen bezala mantentzea eta 25.1 artikuluak aldatzea, legearen ondorioetarako, kirol-jarduerak kultura-jardueretan sartuta daudela argitzea.</p>
<p>▶ <b>25.1. artikuluan, aipatzen diren kultura jardueren artean, oroitzapenezko ospakizunak eta kultura-sorkuntza sartzea. Bestalde, artikulua amaieran, espazio publikoetan kultur jarduerak antolatzeari eta egiteari lotutako debekua jasotzen da. Debeku hori berrikustea proposatzen da, haren formulazioa «gehiegizkotzat» jotzen delako.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA PARTZIALKI</b></p>	<p>▶ Egokitzen jotzen da 25.1 artikuluak aldatzea, eta, hala, legearen ondorioetarako, kultura-jarduerak zentzu zabalean ulertzen direla argitzea. Hala, honako hau jasotzen da: lege honen ondorioetarako, kultura-jardueratzen hartzen dira, besteak beste, artistikoak, jai-giroan egiten direnak, oroitzapenezkoak, kirol-jarduerak eta euskararen hizkuntza-normalizazioaren arloan egindakoak.</p> <p>▶ Artikuluaren amaieran jasotako debekua proportzionatuz jotzen da, eta beste debeku batzuekiko koherentetzat, hala nola Jendurreko Ikusizun eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 6.1.b) artikuluan ezarritakoekiko, zeinak «indarkeria, arrazismoa, xenofobia, sexismoa eta beste edozein diskriminazio mota bultzatzen edo sustatzen duten edo giza duintasunaren aurka egiten duten jarduerak» debekatzen baititu.</p>
<p>▶ <b>25.2. artikuluan zehaztea euskal administrazio publikoek ez dutela laguntzarik emango estereotipo eta aurreiritzi sexistak erreproduzitzen dituen ezein kultura-jarduerarako, eta euskal administrazio publikoaren ordezkariak ezingo dutela haietan parte hartu ordezkari gisa.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokiagoztat jotzen da 25.2. artikulua testuari eustea; izan ere, zaila izan daiteke «estereotipo eta aurreiritzi sexistak erreproduzitzea» esamoldea objektibizatzea debeku hori gauzatzean.</p>

III. TITULUA II. KAPITULUA 26. art., 26.1. art., 26.2. art. eta 26.6. art. GIZARTE-KOMUNIKABIDEAK ETA PUBLIZITATEA		
▶ 26. artikulua tituluaren informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sartzea.	EGOKIA DA	▶ Artikulua aldatu da, proposatutako zentzuan.
▶ 26.1. eta 26.2. artikuluetan debeku-aurreikuspen horiek nola gauzatu diren argitzea, berdintasun-printzipioa eta Espainiako Konstituzioaren 20. artikuluan jasotako adierazpen askerako eskubidea uztartzeko.	EZ DA EGOKIA	▶ Aipatutako artikulua paragrafoak indarrean dagoen legean jasota daudela uste da, eta nabarmendu behar da 2009ko irailaren 29ko 246/2009 autoak (2926-2009 konstituzio-kontrakotasuneko auzia) ez duela izapidetzeko onartzen, nabarmenki funtsik gabea delako, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako 2926-2009 konstituzio-kontrakotasuneko auzia, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 77.3 b) artikuluekin lotutakoa. Artikulu horretan, administrazio-zehapenak ezartzen dira sexistak diren edo emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen duten publizitate-iragarkietarako.
▶ 26.6 artikuluan honako hau gehitzea: euskal administrazio publikoek ezabatu egin beharko dituzte baliabide teknologikoak baldintza berdinetan erabiltzea zailtzen duten oztupoak.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da aipatutako artikulua aldatzea eta honako hau adieraztea: euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, oztupoak ezabatu eta beharrezko diren neurriak hartu behar dituzte, berma dadin emakumeek eta gizonek informazio- eta komunikazio-teknologiak berdintasunez eskuratzeko eta erabiltzeko aukera dutela, eta zuzen daitezela sexu-diskriminazioak eta 3.1 artikuluan aipatutako diskriminazio anizkoitza eragiten duten beste faktore batzuk.
III. TITULUA III. KAPITULUA 1. ATALA. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA ETA III. TITULUA III. KAPITULUA 28. art.		
▶ Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza jorratzen den artikulua guztietan, garrantzi handiagoko ematea eskola-orientazioan genero-ikuspegia sartzeari, hezkuntza-fase guztietan eta, bereziki, azken fasean.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da eskola-orientazio ez-sexistaren gaia berariaz jasota dagoela 28., 29.1.d) eta 31.1 artikuluetan.
▶ Hezkuntza-politikak, «hezkidetzaren printzipioa gauzatzeko aldera», pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredua lortzera bideratu behar direla adieraztea (...).	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
▶ Honako hau gehitzea: «Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatuko da hezkuntza-maila eta -etapa guztietan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide heziketa eta helduentzako irakaskuntza)...»	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
III. TITULUA, III. KAPITULUA, 29.1. art., 29.2. art., 29.4. art. eta 31.2. art.-CURRICULUM		

▶ 29.1. artikuluan «beharrezkoak diren neurri eta baliabideen bidez» aipamena gehitzea.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
▶ 29.1.d) artikuluan, azken tarteki hau gehitzea: «emakumeek lanbide-heziketan, industrian, zientzian eta teknologian eta industrian, eta gizonen humanitateetan, hezkuntzan edo osasunean duten ordezkariak txikia gaitzeste ahal izateko moduan».	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
▶ Honako hau dioen f) apartatua gehitzea: «Sexu-dibertsitatea errespetatzea, sexu-identitate eta -orientazioarekin lotutako aurreiritziari aurre eginez, eta sexualitate aske, positibo eta osasungarria sustatuz».	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
▶ 29.1.d) artikuluan sartzea hezkuntza-administrazioak ikasleak gaitzea eta dauden oztipoak kentzea sustatuko duela, «besteak beste, ikasketak hautatzerakoan, ikasleak orientatzeko programak hobetuta» (...). Halaber, 29.4 atalean zehaztea Hezkuntza Administrazioa arduratuko dela «eskolako» ordutegiak eta egutegiak (...) erraztu dezatela.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
▶ 29.2 artikulua esaten du Hezkuntza Administrazioak oinarriko printzipio gisa ezarriko duela «zalantzan jartzea» emakumeen gorputza errekamo edo aberastasun-produktu gisa erabilitea. «Zalantzan jartzea» aipamenaren ordez «gaitzestea» jarri beharko litzateke.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagotzat jotzen da testua idatzita dagoen bezala mantentzea; izan ere, badirudi egokiagoa dela zerbait «zalantzan jartzeko» ideia eskola-testuingurura eramatea; izan ere, ideia horrek ikuspegi kritiko batetik hausnartzea dakar, eta gaitzespen hutsetik harago doa.
▶ Honako hau jasotzen duen paragrafo bat gehitzea: Hezkuntza Administrazioak hezkidetzaren plan orokor bat onartuko du, eta han jasoko dira, oro har eta koordinatuta, EAEko ikastetxeek hezkidetzari dagokionez garatu behar dituzten jarduerak gidatuko dituzten jarraibideak eta esku-hartze ildoak.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
▶ 31.2 artikuluan aipamen hau gehitzea: «Hala badagokio, kasuan kasuko toki-administrazioko berdintasun-organo edo -unitateekin koordinatuko dira». Era berean, bermatu egingo du ikastetxe horietako ordezkari-organoren gorenetan eta eskola-kontseiluetan dauden berdintasun-ordezkariak prestakuntza egokia izatea, hala udalerrien nola autonomia-erkidegoaren mailan, hezkuntza-eremuan berdintasuna sustatzeko neurriak bultzatzen.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
<b>III. TITULUA III. KAPITULUA 33.3. art. -XEDAPEN OROKORRAK</b>		
▶ Artikulua berrikustea; izan ere, idatzita dagoen bezala, unibertsitateak erakunde autonomo gisa duen berezko autonomia-esparrua inbaditzen duela uste da. Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua eta haren arau- eta jurisprudentzia-garapenak autonomia esparru hori aitortzen dute, eta legegileak arlo horretan duen diskrezionalitatea argi eta garbi mugatzen du.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da testua aldatzea unibertsitatearen autonomia erabat errespetatzen dela aipatzeko. Horregatik, adierazten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere eskumenen esparruan eta unibertsitatearen autonomia erabat errespetatuz, sustatuko duela Euskal Unibertsitate Sistemaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako agente izateko prestakuntza espezializatua ematea, bai eta jakintzaren diziplina eta arlo guztietan genero-ikuspegia txertatzea ere, eta, bereziki, emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria matxista desagerrarazteari



		eta berdintasunari buruzko eduki espezifikoak sartzeari indarkeria horren biktimei arreta ematen dieten profesionalekin lotutako karreretan.
<b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 34.3. art. XEDAPEN OROKORRAK</b>		
▶ Kontuan hartu behar da 34.3 artikuluan jasotako «zaintzaile ez-profesionalak» esamoldeak, argi zehaztuta ez dagoenez, interpretazio-arazoak eta bateraezintasunak sor ditzakeela Mendekotasun Legearekin. Era berean, zaintzaileen aisialdirako, denbora libererako eta atsedenerako eskubideari buruzko aipamenak hobeto argitzea proposatzen da.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jotzen da artikulua proposatutako zentzuan aldatzea, eta profesionalak ez diren zaintzaileek aisialdirako, denbora libererako eta atsedenerako eskubidea dutela adieraztea. Eskubide hori gauzatzeko, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan, euskal administrazio publiko eskudunek neurri hauek hartu behar dituzte, besteak beste (...).
<b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 37.2. art. -ENPLEGU ZERBITZUAK</b>		
▶ 37.2.a) apartatu erreferentzia bat sartzeari enplegu zerbitzuek izan beharreko prestakuntzari buruz, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei eman beharreko tratamenduaren eta arretaren arloan.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
<b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 38. art.-ENPLEGUA LORTZEA ETA LAN-BALDINTZAK</b>		
▶ Artikulu apartatu berri bat sartzeari, eta honako hau adieraztea: gai honetan eskumena duten euskal administrazio publikoek enplegu-politika aktiboetan genero-ikuspegia txertatuko dute, eta beren prestakuntza-programetan generoarekin lotutako modulu espezifikoak sartuko dituzte.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jotzen da apartatu berri bat sartzeari, proposatutako zentzuan.
▶ 38.c) artikuluan zehaztea zeintzuk diren aipatzen diren sektore estrategikoak.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiago jotzen da testua jatorrizko idazkeran mantentzea, eta legea aplikatu behar duenaren esku uztea une bakoitzean estrategikoenak diren sektoreei buruzko erabaki informatua, testuinguruaren arabera alda daitekeen auzia baita.
<b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 40.2., 40.3., 40.4. eta 40.6. artikulua. -EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAK ETA POLITIKAK</b>		
▶ 40.2 artikulua ezartzen du 25 langile baino gehiago dituzten enpresa txikiek erakundeko berdintasun-politikez arduratzen diren langile espezializatuen zerbitzua bat izan behar dutela. Betebehar hori gehiegizkoa den baloratu beharko litzateke.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitzen jotzen da testua jatorrizko idazkeran mantentzea; izan ere, ez da gehiegizkotzat jotzen 40.2 artikulua planteatzen duena, 6/2019 Errege Lege Dekretuak 50 langiletik gorako enpresa pribatuentzat ezartzen dituen betebeharrak kontuan hartuta.

<p>▶ <b>40.3. eta 40.4. artikuluetan, «ezarri behar du» edo «bultzatu behar du» moldeen ordez, «erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan sustatuko du» esamoldea jartzea.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Egokitzat jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea, nahiz eta agintera («bultzatu behar du») zein geroaldia («bultzatuko du») erabili ohi diren arau juridikoetan aginduak ezartzeko.</p>
<p>▶ <b>40.6 artikuluan, ordainsari-diskriminazioari buruzko neurriak garatzeko gizarte-eragileekiko lankidetzaren txertatzea.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Ekarpeneraren xede den artikulua hainbat neurri mota jasotzen dituela uste da, eta ziur aski neurri horietako batzuk gizarte-eragileekin lankidetzan gauzatzea komeniko litzatekeen arren, lankidetzaren benetan gauzatzea ezin da baldintza izan neurri horien garapenerako.</p>
<p><b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 41. art. ERAKUNDE LAGUNTAILEAK</b></p>		
<p>▶ <b>Artikuluan langileen legeko ordezkariari (LLO) egindako kontsulta sartzea.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokiagozat jotzen da planteatutako gaia erakunde laguntzailearen figura arautzen duen garapen-arauan sartzea, hala badagokio. Artikulu hori garatzen duen erregelamenduak (otsailaren 11ko 11/2014 Dekretua) ezartzen du, aitortpena lortzeko baldintza dela «langile guztiei diagnostikoa eta egindako plana jakinarazi izanaren egiaztatzea».</p>
<p><b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 42.2. art. -NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA</b></p>		
<p>▶ <b>Hitzarmen kolektiboetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea gomendio gisa adieraztea, eta ez betebeharrak gisa, eta kontuan hartzea ezin direla oztopatu negoziazio kolektibo baten edukiak hitzarmen kolektiboaren erregistroaren bidez.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokitzat jotzen da testua idatzita dagoen bezala mantentzea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iritzia jakin arte.</p>
<p><b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 43.1. art. eta 43.3. art. -LANEKO OSASUNA</b></p>		
<p>▶ <b>43.1.a) apartatua honako hau gehitzea: segurtasun- eta osasun-politikak, -estrategiak eta -programak diseinatzean, kontuan hartuko dira emakumeen behar espezifikoak, eta ezaugarri anatomiko, fisiologiko eta psikosozialak, eta haiek behar bezala lantzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Artikuluan sexuaz gain beste aldagai batzuk ere kontuan hartuko direla adierazten bada ere, aldagai horiek ez dira zehazten.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Egokitzat jotzen da artikuluari beste apartatu bat gehitzea, eta proposamenean ematen diren zehaztapenak txertatzea.</p>
<p>▶ <b>43.3 artikulua idazketaren izaera baieztatu berrikustea, eta honako hau gehitzea: delitu gisa tipifikatzeko «aukera» alde batera utzi gabe; izan ere, delitua izango da baldin eta delitu tipoen baldintzak betetzen baditu, ez kasu guztietan.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Egokitzat jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.</p>

III. TITULUA V. KAPITULUA 44.3. art. -OSASUNA		
▶ «Laguntza bidezko giza ugalketa, egoera zibila, sexu-orientazioa edo jatorria edozein dela ere» jarri ordez, honako hau jartzea: «Onartutako laguntza bidezko giza ugalketaren prestazioak, egoera zibilagatik, sexu-orientazioagatik edo jatorriagatik diskriminaziorik gertatzeko aukerarik gabe».	EGOKIA DA	▶ Egokitzat jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
III. TITULUA V. KAPITULUA 45. art. -GIZARTERATZEA		
▶ Kontuan izatea gizarte-zerbitzuen eta diru-sarreraren bermearen esparrua ustezko esparru sektorial batean subumitzen dela, eta berez, gizarteratzea, aplikatu beharreko legediaren arabera, berdintasuna bezain zeharkakoa den gaia dela.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da gizarteratzeari buruzko gai batzuk aipatutako artikuluan arautu izanak ez duela esan nahi gizarteratzea zeharkako gai gisa tratatzen ez denik.
III. TITULUA VI. KAPITULUA. 48.1. art. eta 48.2. art. - ENPLEGU-EGITURAK EGOKITZEA ETA KULTURA ETA PRAKTIKA ENPRESARIALA ERALDATZEA		
▶ 48. artikulua berrikustea; izan ere, lanaldi-murrizketa edo lan-eszedentzia hartu duten emakume langileengan jartzen du arreta, eta hori oso baldintza mugatua da, emakume zaurgarrietako asko kanpoan uzten baititu.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitzat jotzen da artikulua ez aldatzea, ez baita soilik «lanaldi-murrizketa edo lan-eszedentzia bat hartu duten emakume langileei» buruzkoa; ikuspegi orokorragoa du.
▶ 48.1. artikuluan langileen legezko ordezkarien (LLO) parte-hartzea sartzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da ez dela beharrezkoa testua aldatzea, indarreko legeriak jada bermatzen baitu langileen legezko ordezkariak parte hartuko dutela administrazio publikoetako langileen lan-baldintzen zehaztapenean.
▶ 48.2. artikuluan, «bideratu behar dituzte» esapidearen ordez, «sustatuko dituzte, erregelamenduz zehazten diren baldintzei jarraikiz (...)» jartzea, eta langileen legezko ordezkariaren (LLO) edo, halakorik ez badago, langileen parte-hartzea sartzea.	PARTZIALKI EGOKIA	▶ Egokitzat jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea, Langileen Legezko Ordezkaritzaren parte-hartzeari dagokion zatia izan ezik; izan ere, komenigarriagoztat jotzen da hura erregelamendu bidez zehaztea, hala badagokio.

III. TITULUA VI. KAPITULUA. 49.1. eta 49.3. art. -ZAINKETEN HORNIDURA UNIBERTSALA ETA PUBLIKOA		
▶ 49.1. artikuluan aipatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema dela, eta ez besterik, zainketen hornidura unibertsala eta publikoa legez esleituta duena, eta zerbitzu soziokomunitarioen aipamena kentzea, euskal ordenamendu juridikoan ez baitago halakorik.	EGOKIA DA	▶ Egokitzat jotzen da artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema aipatzea, eta zerbitzu soziokomunitarioen aipamena kentzen da.
▶ 49.3 artikulua idazketan, zaintza arreta-beharrekin osatzea.	EGOKIA DA	▶ Egokitzat jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.
III. TITULUA VII. KAPITULUA. 50.2. art.-XEDAPEN OROKORRAK		
▶ Artikuluan hobeto zehaztea, emakumeen aurkako indarkeria matxista kontzeptualizatzen denean, «edo modu neurrigabearen eragiten diena» adierazpena.	EZ DA EGOKIA	▶ Istanbulgo Hitzarmenaren 3. artikuluan berriaz jasotzen da emakumeen aurkako indarkeriatzat jotzea «neurrigabe eragiten dien indarkeria hura». Desproportzioak ez du loturarik indarkeria gauzatzeko intentsitatearekin, indarkeria mota batek emakumeengan izan dezakeen prebalentziarekin baizik.
III. TITULUA VII. KAPITULUA. 52.2. art. -SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA		
▶ Artikuluaren idazketa berrikustea; izan ere, bai artikuluan, bai arau-testu osoan, oso modu orokorrean jorratzen dira emakumeen errealitateak eta egoerak, diskriminazio faktore desberdinak biltzen dituztenak, eta ez da zehazten zer faktoreri buruz ari den, ezta nola egingo den ere.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitzat jotzen da testua dagoen bezala mantentzea; izan ere, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeen berezitasunak kontuan hartzearen gaia 3.1 eta 3.2 artikuluetan jasotzen da oro har, eta, zehazkiago, besteak beste, honako artikuluetan: 5.n, 6.i, 7.1.i, 10.2.e, 24.1, 24.5, 26.6, 34.3.b, 37.2.b, 38.1, 39.2, 45, 46.1, 50.7b, 51.2 eta 54.1.
III. TITULUA VII. KAPITULUA. 56. art. -INFORMAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZU OROKORRAK		
▶ Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak emakumeen aurkako indarkeria matxistari ematen dion arretari buruzko artikulua batera edo gutxiago zatituta aurkeztea.	EGOKIA DA	▶ Egokitzat jotzen da 56. artikulua aldatzea, bertan informazio eta arreta sozialeko zerbitzuak soilik uzteko, eta larrialdietako zerbitzua 57. artikulura pasatzea, artikulua horretan jorratzen baitira Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemari buruzko baliabideak.

III. TITULUA VII. KAPITULUA. 57.1. art. eta 57.4. art. - ARRETA ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUAK		
<p>▶ <b>Berariaz jasotzea harrera-baliabideak eskura egongo direla, indarkeria matxistaren biktima diren emakume desgaituak «egoitza-baliabideetan bizi» behar izan ez dezaten.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Egokitzen jotzen da ETELen 18.3 artikuluan aurreikusitako eranskina egitea, eta memoria ekonomikoan sartzea udal-eskumeneko harrera-pisuak «esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko eta intentsitate txikiko gizarte-laguntzako zerbitzuez» hornitzeko behar diren baliabideen zenbatespena.</p>
III. TITULUA VII. KAPITULUA. 60.1. art. -ARRETA POLIZIALA ETA JUSTIZIARAKO SARBIDEA		
<p>▶ <b>Atal berri bat eranstea, eta honako hau adieraztea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta euskal udalerrietako toki-administrazioek biktimaren edo bizirik iraun duenaren intimitatea, irudia eta bizitza pribatua babesteko neurriak hartuko direla bermatuko dute.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokiagotzat jotzen da 50.7 a) artikulua aldatzea, gai hori oro har kontuan har dadin, eta ez soilik arreta polizialari eta judizialari dagokienez.</p>
III. TITULUA VII. KAPITULUA. 61. art. ERREPARAZIO-ESKUBIDEA		
<p>▶ <b>61. artikulua idazketa berrikustea, haren azterketatik ez baita ondorioztatzen indarkeria matxista jasan duten emakume desgaituek bizitza independentea berregin ahal izatea bermatuko denik.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Uste da aurreproiektuak biktima guztien erreparaziorako eskubidea aitortzen duela, inolako bazterketarik gabe. Horrez gain, 54.1 artikulua honako hau adierazten du berariaz: euskal administrazio publikoek bermatu behar dute emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko detekzio-, arreta- eta erreparazio-jarduketak egiterakoan, emakumea ez dela berriz biktimizatuko eta neurri guztien ardatzean biktimen eskubideak eta ahalduak jarriko direla, eta, bereziki, lege honen 3.1 artikulua azken paragrafoan aipatutako diskriminazio anizkoitzaren faktore eragileak izateagatik ahultasun-egoera handiagoan dauden pertsonenak.</p>
<p>▶ <b>61.1.a) artikuluan jasotako «betiere, biktimen segurtasuna behar bezala kontuan hartzen bada» adierazpena argitzea.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokitzen jotzen da testua idatzita dagoen bezala mantentzea; izan ere, adierazpen hori berariaz jasotzen da Istanbulgo Hitzarmenean, eta biktimaren segurtasunari lehentasuna ematearekin du zerikusia, Administrazioak erasotzailearen aurka egin dezakeen erreklamazio-ekintza baten aurrean, baldin eta ekintza horrek onurak baino arrisku gehiago ekar badiezazkioke biktimari.</p>
<p>▶ <b>1.c) apartatua aldatzea, eta «ez errepikatze bermea» jarri ordez, «ahalegin guztiak egitea, edozein motatakoak, errepikatzea saihesteko» jartzea. Uste da bermatzea terminoa ez dela, ezta posiblea ere.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Egokitzen jotzen da testua idatzita dagoen bezala mantentzea; izan ere, adierazpen hori berariaz jasotzen da Istanbulgo Hitzarmenean, eta biktimaren segurtasunari lehentasuna ematearekin du zerikusia, Administrazioak erasotzailearen aurka egin dezakeen erreklamazio-</p>

		ekintza baten aurrean, baldin eta ekintza horrek onurak baino arrisku gehiago ekar badiezazkioke biktimari.
<b>V. TITULUA 76. art. ERANTZUKIZUNA</b>		
<p>► Artikulua berrikustea; izan ere, berdintasun-planei eta -neurriei buruzko estatuko araudi berriak (Berdintasunari buruzko Estatuko Legea eta martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua) betebeharrak eta zehapen batzuk ezartzen ditu berdintasun-neurriak eta -planak ez betetzeari dagokionez. Ildo horretan, uste da konkurrentzia bat egon daitekeela estatuko erregulazio horrekin eta lege-aurreproiektu honen 77.3.b) artikuluekin, 40.1 artikuluari erreferentzia egiten dionean, eta horrek zehapen bikoitza eragin dezakeela.</p>	<b>EGOKIA DA</b>	<p>► Egokitzat jotzen da testua proposatutako zentzuan aldatzea.</p>

## EKARPENAK EGIN DIREN TITULUAK ETA KAPITULUAK

<b>ZIOEN AZALPENA</b>			
<b>ATARIKO TITULUA</b>			
<b>I. TITULUA</b>	<b>ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAMENDUA ETA FINANTZAKETA</b>	<b>I. KAPITULUA</b>	<b>ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK</b>
		<b>II. KAPITULUA</b>	<b>ANTOLAMENDU INSTITUZIONALA ETA KOORDINAZIOA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEAN</b>
		<b>III. KAPITULUA</b>	<b>FINANTZAKETA</b>
<b>II. TITULUA</b>	<b>EUSKAL ADMINISTRAZIO ETA BOTERE PUBLIKOEN JARDUNEAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO NEURRIAK</b>	<b>I. KAPITULUA</b>	<b>PLANGINTZA</b>
		<b>II. KAPITULUA</b>	<b>ESTATISTIKAK ETA AZTERLANAK</b>
		<b>III. KAPITULUA</b>	<b>LANGILEEN TREBAKUNTZA</b>
		<b>IV. KAPITULUA</b>	<b>ADMINISTRAZIOAREN ARAUDIAN ETA JARDUERAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK</b>
<b>III. TITULUA</b>	<b>ZENBAIT ESKU-HARTZE ARLOTAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK</b>	<b>I. KAPITULUA</b>	<b>PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA</b>
		<b>II. KAPITULUA</b>	<b>KULTURA ETA KOMUNIKABIDEAK</b>
		<b>III. KAPITULUA</b>	<b>HEZKUNTZA</b>
		<b>IV. KAPITULUA</b>	<b>LANA</b>
		<b>V. KAPITULUA</b>	<b>OINARRIZKO BESTE ESKUBIDE SOZIAL BATZUK</b>
		<b>VI. KAPITULUA</b>	<b>BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA</b>
		<b>VII. KAPITULUA</b>	<b>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA</b>
		<b>VIII. KAPITULUA</b>	<b>BERDINTASUNAREN ETA SEXUAGATIKO BEREIZKERIA EZAREN PRINTZPIOA DEFENDATZEA SEKTORE PRIBATUAN</b>
<b>V. TITULUA</b>	<b>ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK</b>		

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA  
ALDATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

**ERAKUNDE ETA ORGANO AHOLKU-EMAILEEN TXOSTENETATIK ERATORRITAKO  
EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA**